Lan-eskaintzen erregistroa 2020ean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2020an Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 8.829koa izan da, 2019an baino 6.124 gutxiago (%41eko jaitsiera). Covid-19ak sortutako pandemiak, datu honetan eta txostenean agertzen diren besteetan, eragin haundia izan du.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2020an 1.346 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 3.228 Gipuzkoan eta 4.225 Bizkaian. Lan-eskaintzen %48,2 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, %36,6 Gipuzkoan eta %15,2a Araban.



Aurreko urtearekin alderatuz, lurralde guztiek bilakaera negatiboa izan dute. Gipuzkoan murriztu dira gehien kontratuak, %46, ondoren Araba eta Bizkaia daude, biek ala biek antzeko murrizketa jasan dute portzentaiari dagokionez; %37,7 eta %37,6 hurrenez hurren.

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak Zientzia teknikarien lanbide-profilerako erregistratuko lan-eskaintzak dira pisu haundiena dutenak (%20, 1.774 eskaintza). Zerbitzuetako, industriako, laguntzarako teknikarien eta okupazio ez kualifikatuen lanbide-profilek ere pisu nabarmena dute erregistratutako lan-eskaintzetan; 1.476, 1.450, 1.377 eta 1.255 eskaintza erregistratu dira, hurrenez hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu den profila zuzendariena izan da (64 eskaintza soilik), lehen sektoreko langileen aurretik (140 lan-eskaintza).

Urte arteko saldoari erreparatuz, profil guztietako eskaintzak murriztu dira. Bai balio erlatibo zein absolutuetan, zerbitzu sektoreko eskaintzak dira gehien murriztu direnak (%51,1eko murrizketa, 1.542 eskaintza gutxiago). Azpimarratzekoa da ere, industriako eskaintzak izan duten beherakada ; 1.162 eskaintza gutxiago.

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen %11,6k kontratu mugagabea eskaini dute; %87,6k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko %0,8k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 1.028 izan dira, 761 gutxiago aurreko urtearekin alderatuz, %42,5eko murrizketa. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten eskaintzak 5.343 jaitsi dira: guztira 7.733 eskaintza izan dira. Kopuru erlatiboetan murrizketa %40,9koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2020an 68 izan dira, aurreko urtean baino 20 gutxiago (%22,7ko jaitsiera).

Kontratuen kalitatea aztertzeak ere garrantzia du. Aldi baterako kontratuen kopurua oso handia da, eta, gainera, urte honetan, kontratu mugagabeek pisua galdu dute (% 12tik % 11,6 izatera pasa dira) eta horrek, etorkizuna nolabaiteko ezkortasunez ikustea dakar.



• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2020an erregistratutako lan-eskaintzen %72,7ak (6.422 eskaintzak) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen %13,6k (1.204) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Eskaintzen %10,8k, 953k, urte 1etik 3ra arteko esperientzia eskatzen du. Portzentaje txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenek, hain zuzen; %2,4ko eta %0,4ko pisua dute, hurrenez hurren.

Urte arteko eboluzioari dagokionez, tarte guztietako eskaintzak murriztu dira. Gehien murriztu diren eskaintzak, balio absolutuetan, 0 eta 6 hilabete bitarteko esperientzia-denbora eskatzen dutenak izan dira, %40,5eko murrizketa (4.378 eskaintza gutxiago). Balio erlatiboetan, aldiz, 6-12 hilabete eskatzen dituztenak jasan dute murrizketa haundiena (1.174 eskaintza gutxiago, %49,4ko jaitsiera).



Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatu dute 2020an, aurreko urtean bezala.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin hasi baino lehenago, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintza guztien %17ak zehazten du datu hori (8.829 eskaintzetatik 1.491k). 1.491 eskaintza horietatik, 1.179 (%79,1) lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 312ak lanaldi partziala eskaini dute.

Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 752 gutxiago izan dira aurreko urtearekin alderatuz, hau da, %38,9 jaitsi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 306 gutxiago izan dira; murrizketa %45,9koa izan da.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Erregistratutako eskaintzen %0.8 izan dira ABLEen bitartez kudeatu direnak, 8.829 eskaintzetatik 74 soilik. Aurreko urtean 222 izan ziren.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen %82,5ek ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 8.829 eskaintzetatik 1.541ek soilik zehaztu dute.

1.541 eskaintza horietatik, 632k LHko prestakuntza maila eskatu dute (%41ek); gehien eskatu den prestakuntza maila izan da. Horiei jarraituz, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, 505 eskaintza (%32,4). Ondoren, gutxieneko ikasketak eskatzen dituztenak daude 307 eskaintzekin (%19,9). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude, erregistratutako 97 eskaintzekin, eta %6,3ko pisua dute erregistratzeko orduan adierazle hau zehaztu duten 1.541 eskaintzen artean.

Eboluzioari dagokionez, esan beharra dago 2020an lan-eskaintza gutxiagotan zehaztu zela prestakuntza maila (2.292 eskaintza 2019an; 1.541 eskaintza 2020an), eta hauen pisua handiagoa izan zela eskaintza guztien artean (%17,4koa aurten iazko %15,3an aldean). Urte arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak murriztu dira. Batxilergoko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak izan dira gehien murriztu direnak balore erlatiboetan, %39 murriztu baitira (62 eskaintza gutxiago); balio absolutuetan, aldiz, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira bilakaera okerrena eduki dutenak (163 eskaintza gutxiago, % 24,4ko beherakada).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen diren jarduera manufaktura-industria eta administrazio publikoa dira, eskaintzen %13ko, eta %12,4ko pisuarekin, hurrenez hurren (1.149 eta 21.096 lan-eskaintza 8.829 eskaintza guztietatik, hurrenez hurren).

Aurreko urteari erreparatuz gero, jarduera guztiek murriztu dituzte eskaintzak, erauzketa industria izan ezik (1etik 2ra pasa da 2020ean). Murrizketa esanguratsuenak, balio absolutuetan, manufaktura industrian eta merkataritzan eman dira, 1.083 eta 1.087 eskaintza gutxiago, hurrenez hurren. Balio erlatiboetan, aldiz, bilakaera okerrena ostalaritzak izan du (% 66,7ko jaitsiera, 818 eskaintza gutxiago).


Eskaintzaren jarduera
Etxeak langile enplegatzaile gisa
Beste zerbitzuak
Artistikoak, jolaserakoak eta entretenimenduzkoak
Osasun jarduerak eta gizarte-zerbitzuak
Hezkuntza
Administrazio publikoa
Jarduera administratiboak
Profesionalak, zientifiko eta teknikoak
Higiezinen arloko jarduerak
Finantza eta aseguru jarduerak
Informazioa eta komunikazioa
Ostalaritza
Garraio eta biltegiratzea
Handizkako eta txikizkako merkataritza; konponketa
Eraikuntza
Ur-horniketa, handakinen kudeaketa
Argindar, gas, lurrun horniketa
Manufaktura industriak
Erauzketa industriak
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza
0,00%
2,00%
4,00%
6,00%
8,00%
10,00%
12,00%
14,00%